

GRADUKO MATRIKULA IKASLE BERRIAK

MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK

MATRIKULA	1
Noiz egin behar dut matrikula? Nola egiten da?	1
Zer dokumentazio eraman behar dut?	1
ARDURALDIA ETA IRAUPENA	1
Zenbat irakasgai dira ikasturte bakoitzean?	1
Irakasgai gutxiagotan matrikula egiteko aukera badaukat?	2
Zenbat irakasgai gainditu behar ditut karreratik kanporatu ez nazaten?	2
ORDUAK ETA TALDEAK	2
Zein talde eta ordutegitan nago? Badut aukeratzetik?	2
Goizeko ordutegira alda naiteke?	2
Taldez alda dezaket, ordutegi horretan kirol jarduera batean aritu behar badut?	3
Eta Kontserbatorioko ordu berean badaukat?	3
IRAKASGAIK EUSKARAZ ETA INGELESEZ	3
Zein irakasgai ikas ditzaket euskaraz? Eta ingelesez?	3
Euskarazko Irakasle Graduan matrikula egin nahi dut.....	3
Irakasgairen bat ingelesez egitea nahiko nuke	3
Matrikulatutako irakasgai baten hizkuntza aldatzerik badut?	4
ZENBATEKOA ETA ORDAINKETA	4
Nork finkatzen ditu ikasketen prezioak?	4
Batxilergoan ohorezko matrikula atera nuen... ..	4
Nola ordaindu behar dut matrikularen zenbatekoa?	4
BEKAK	4
Noiz eta nola eskatzen dira beka, zein daukat eskatzerik?	4
Badaukat matrikula "bekadun" gisa egitea, ez badakit emango didaten ala ez?	5
Hezkuntza Ministerioaren beka jasoko dut, ikasketak aldatzen baditut?	5
ALDAKETA ETA EZABAKETA	5
Okertu naiz irakasgai bat matrikulatzean. Alda dezaket matrikula?	5
KREDITUAK AITORTZEA	6
Prestakuntza Ziklo bat edukitzeagatik baliozkotzen didate irakasgairik? Eta beste karrera bat edukitzeagatik?	6

MATRIKULA

Noiz egin behar dut matrikula? Nola egiten da?

Nafarroako Unibertsitate Publikoan matrikula egiteko, web-orrialdean, ikasle berrien atalean, argitaratutako egutegian egin behar da. Ikusten duzunez, aldatu egiten da onartua izan zaren zerrendaren arabera. Matrikula online egingo da. Matrikula Arrosadiko Campuseko Ikasgelategiko 017. ikasgelan egiteko aukera ere baduzu, eta unibertsitateko langileek lagunduko dizute.

Zure matrikulan, lehen ikasmilako irakasgaiak aukeratu behar dituzu (zein ikasketa egin behar dituzun), eta kasu batzuetan zure ikasketak zein hizkuntzatan egin nahi dituzun hautatzeko aukera izango duzu (gaztelania / euskara / ingelesa). [Kontsultatu hizkuntza hauetan dagoen irakasgai-eskaintza.](#)

Behin matrikula egin ondoren, hamar egun dituzu dokumentazioa aurkezteko eta ordainketa egiteko Interneten bidez edo bankuan.

Irakur itzazu arretaz [webeko matrikula-sekzioko](#) jarraibideak matrikula egin baino lehen, akatsik eta ondoren aldaketarik ez egiteko.

Zer dokumentazio eraman behar dut?

- NANaren fotokopia (lehenago aurkeztu ez bada).
- Fisioterapiako eta Ingeniaritza Diseinu Mekanikoko ikasleentzat: argazki aski berria, txartel tamainakoa, jatorrizkoa (atzean NAN zenbakia, izena eta deiturak idatzi). Unibertsitateko txartela egiteko beharrezkoa da.
- Ikasle guztiek eman behar dute zintzotasun akademikoaren aldarrikapena sinatuta (dokumentu hau matrikularekin batera sortzen da, edo webetik jaisten da).
- Sinestamendua, familia ugariarena (Nafarroatik kanpo bizi direnak), desgaitasunarena, batxilergoko edo lanbide-heziketako ohorezko matrikularena, edota terrorismoaren edo genero indarkeriaren biktima izatearena, arrazoi horietako batengatik tasen salbuespenerako eskubidea baldin baduzu.
- Unibertsitatean sartzeko proben espedientearen lekualdaketa (Nafarroatik kanpo egindako hautaprobena).

Gogoratu EZ DIRELA AURKEZTU BEHAR MATRIKULAREN KOPIA ETA ORDAINAGIRIA. Matrikula egitean sortzen dira dokumentu horiek.

ARDURALDIA ETA IRAUPENA

Zenbat irakasgai dira ikasturte bakoitzean?

Arduraldiak matrikulatuko duzun kreditu kopuruari egiten dio aipamena. Urteko matrikula daukaten graduako titulazioetako ikasketa planek, gure titulazio gehienek, 10 irakasgai dituzte ikasturte bakoitzean (60 ECTS kredituak), (gradu bakoitzean izan ezik).

Unibertsitatean irakasgaiak ECTS kreditutan neurtzen dira. ECTS 1 ikaslearen 25 orduko lana da, eta irakasgai bakoitzak 6 ECTS ditu, hau da, 150 orduko lana (eskolak, talde-lana, ikasketa etab.).

Irakasgai gutxiagotan matrikula egiteko aukera badaukat?

Nolanahi ere, irakasgai gutxiagotan matrikula egiteko aukera badaukazu, gutxienez 30 urtean, edo 84 ikasturte bakoitzean. Kontsultatu matrikula webean, "zure titulazioko arduraldia atalean.

Zenbat irakasgai gainditu behar ditut karreratik kanporatu ez nazaten?

Bai, bada eduki beharreko gutxieneko errendimendu bat urtean. Kontsultatu matrikula webean, ikasleen profilean.

Ez duzu gradu horretan jarraitzerik izango. Iraupen Batzordean errekurtsioa aurkezteko aukera izango duzu, zure eskaerari buruzko egiaztagiriekin batera. Errekurtsioa atzera botatzen badute, zure ikasketa plana utzi beharko duzu. Halakoetan, beste ikasketa batzuk ikasteko aukera izango duzu, ikasle berriei dagokien aurreinskripzioa eginez onartzen bazaituzte, edo bi urte igaro ondoren, gradu berera itzuli eta horri jarraipena eman. Bi aukerak bateraezinak dira; bata edo bestea hautatu behar duzu..

ORDUAK ETA TALDEAK

Zein talde eta ordutegitan nago? Badut aukeratzetik?

Kontsultatu [Matrikula-webeko Ordutegiak atala](#).

Ikasleek behin betiko taldea kontsultatu behar dute beren espedienteetan, [Zerbitzuen Atarian](#): ([Nola kontsultatu behar den](#))

Erabiltzailea: lehendeitura.IIZ (IIZ zure matrikularen frogagirian azaltzen da)

Pasahitza: matrikularena ([Pasahitza berreskuratu](#))

Behin matrikula egin ondoren, matrikularen frogagirian ikusiko dituzu zein taldetan egin duzun matrikula.

Goizeko ordutegira alda naiteke?

.

Taldea (edo ordutegia) aldatzeko aukera izango duzu, betiere ordutegi bateraezinak badituzu NUPen matrikulatutako irakasgaien artean, goi mailako kirolaria bazara, entrenatzeagatik edo unibertsitate taldeetan kirola egiteagatik, edota lan edo Musikako Goi edo Ertain Mailako Ikasketen ordutegiarekin bateraezinak diren ordutegiak izateagatik.

Taldez alda dezaket, ordutegi horretan kirol jarduera batean aritu behar badut?

Aldatzeko modua izanen duzu, baldin eta errendimendu handiko kirolaria bazara, ez bestela, bai deialdi orokorretik bai NUPen deialditik ere.

- [Goi mailako kirolaria](#)
- [Errendimendu handiko kirolaria NUPen](#)

Eta Kontserbatorioko ordu berean badaukat?

Bai, taldea aldatzeko aukera duzu, zure eskolak Goi edo Ertain Mailako Musika Eskolako ordu berean badira. Unibertsitateak taldea aldatzen uzten duen kasuetako bat da hau. Eskolak laneko orduetan badituzu, taldea aldatzen uzten du Unibertsitateak.

IRAKASGAIK EUSKARAZ ETA INGELESEZ

Zein irakasgai ikas ditzaket euskaraz? Eta ingelesez?

Ondoko esteka honetan begiratu: [Irakasgaiak](#)

Euskarazko Irakasle Graduan matrikula egin nahi dut...

Irakasgaien hizkuntza ez da aurreinskripzioan aukeratu behar, orain aukeratu behar da, automatrikulan. Behin irakasgaiak aukeratu ondoren, programan banan-banan aldatu behar dituzu, gaztelaniatik euskarara.

Irakasgairen bat ingelesez egitea nahiko nuke...

Irakasgaien hizkuntza aukeratuko duzu, betiere eskaintza baldin badago, aurreko galderan azaldutako prozedurari jarraiki.

Egin kontu nazioarteko taldeetako ikasleak behartuak daudela beren ikasketa-planean ingelesez eskaintzen diren irakasgaietan matrikula egitera.

Matrikulatutako irakasgai baten hizkuntza aldatzerik badut?

Matrikula aldia bukatu bada, administrazio eraikinean eskatu, esandako epean, eta aldaketa egingo da ikaspostu betegabeak badaude.

ZENBATEKOA ETA ORDAINKETA

Nork finkatzen ditu ikasketen prezioak?

Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuak NAOn argitaratzen ditu urtero irakaskuntza zerbitzuen prezioak. Kontsultatu gure webean [prezioei buruzko informazioa](#). Egin kontu irakasgaiaren prezioa gehitu egiten dela egindako matrikula kopuruaren arabera, hau da, irakasgai bat gainditzen ez baduzu eta bigarren aldiz matrikulatu behar baduzu, prezioa bikoiztu egiten da.

Batxilergo edo LHan ohorezko matrikula atera nuen...

Batxilergo edo LHan ohorezko matrikula lortu baduzu, Irakaskuntza-tasetan % 100eko murrizketarako eskubidea duzu zure ikasketen lehen urtean. Gauza bera gertatzen da lanbide-heziketan ohorezko matrikula baduzu.

Horrez gainera, unibertsitateko irakasgai batean ohorezko matrikula izateak eragina dauka hurrengo ikasturtean matrikula. Irakaskuntza tasen salbuespena ematen du, eta bere zenbatekoa ohorezko matrikula lortu duzun irakasgaiaren kreditu kopuruari dagokiona da.

Nola ordaindu behar dut matrikularen zenbatekoa?

Beharrezkoa da bankuan ordaintzea ordainketa gutunarekin edo matrikularekin sortzen den ordainagiriarekin, edo interneten bidez egiteko aukera ere bada.

Garrantzitsua da argi edukitzea ez dela matrikulan jarri duzun kontu zenbakian kargatzen, hori bakarrik erabiliko baita Unibertsitateak itzulketaren egin behar badizu.

BEKAK

Noiz eta nola eskatzen dira bekak, zein daukat eskatzerik?

Nafarroan erroldatua bazaude, eta aurreko urtean P.F.E.Z.aren zergaduna izan bazara erkidego honetan, Hezkuntza Ministerioaren eta Nafarroako Gobernuaren beka eskatzeko aukera izango duzu. Nafarroakoa eskatzeko, Ministerioarena ere eskatu behar duzu (salbuespenak izan ezik).

Euskal Autonomia Erkidegokoa bazara, Eusko Jaurlaritzaren beka. Beste erkidego batekoa bazara, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren beka eta zure erkidegoaren beka, baldin badago.

Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren bekak eskatzeko epea abuztuaren erdialdera ireki eta urriaren erdialdera itxi ohi da. Eusko Jaurlaritzarena ere data horretan amaitzen da. Nafarroako Gobernuak, bestalde, urriaren amaiera arteko epea eman ohi du.

Aipatu hiru bekak online eskatu behar dira. Ministerioaren beketarako ez da inolako dokumentaziorik aurkeztu behar, unibertsitatea aldatzean duzunean, atzerrian errentak lortu dituzunean edo ekonomia eta familia independentzia aitortu behar duzunean salbu. Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren beken kasuan, gainera, dokumentazioa aurkeztu behar duzu Unibertsitateko Beken Bulegoan.

Badaukat matrikula "bekadun" gisa egitea, ez badakit emango didaten ala ez?

Bi aukera hauetatik bat hartu behar duzu:

A. Ez bekadun modura egiten baduzu matrikula, orain ordaindu beharko duzu matrikula, eta bekari buruzko erabakia hartzen dutenean, abendurik aurrera gertatzen dena, ematen badizute, emandako diru-kopurua ikaslearen kontu zenbakian sartuko dizute.

B. Matrikula bekadun modura egiten baduzu, soilik administrazio prezioak ordaindu beharko dituzu orain, baina irakaskuntza prezioak ez. Beka ematen ez badizute, matrikularen zenbateko osoa ordaindu beharko diozu unibertsitateari, eta ezin izango duzu ordainketa hainbat epetan zatikatu.

Hezkuntza Ministerioaren beka jasoko dut, ikasketak aldatzen baditut?

Heldu den ikasturtean ez dizu bekarik emango. Bekadun izaera osoarekin edo partzialarekin egindako unibertsitate ikasketez aldatzean, ez duzu bekarik lortzerik izango harik eta ikasketa berrietan matrikulatutako ikasmaila kopurua handiagoa izan arte utzi dituzun ikasketetan beka izan zenuen urte kopurua baino.

ALDAKETA ETA EZABAKETA

Okertu naiz irakasgai bat matrikulatzean. Alda dezaket matrikula?

Matrikula epean alda daiteke baina lehen pausoa da egin den matrikularen ezabaketa eskatzea (auto-matrikulako ikasgelan edota mezu bat grado@unavarra.es bidaliz) eta berriz ere matrikula-epean egitea. Begiratu matrikula aldatzeko kasuak webean.

KREDITUAK AITORTZEA

Prestakuntza Ziklo bat edukitzeagatik baliozkotzen didate irakasgairik? Eta beste karrera bat edukitzeagatik?

Kontsultatu esteka honetan [lanbide-heziketako zein irakasgai](#) aitortzen ahal dizkizuten.

Zure ikasketa planeko irakasgaietan egin behar duzu matrikula (aitortuko dizkizutenak barne), eta dagokion epean aitortzea eskatu Unibertsitatearen Erregistro Orokorrean eskabide bat aurkeztuz. Zure eskaera ebatzi ondoren, Gradu bulegokoak zurekin harremanetan jarriko dira, matrikula zabaldu nahi baduzu beste irakasgai batzuekin.

Eskolak hasi badira baina oraindik ez baduzu ebazpena jaso, egin nahi dituzun beste irakasgaietako eskoletara joaten hastea komeni da; esan irakasleei ezin izan duzula irakasgai horietan matrikula egin kredituak aitortzeko daukazulako.

Prozedura bera aplikatuko da [unibertsitateko beste titulazio](#) batzuetan onetsitako irakasgaietarako.